



Ale honetan

Aurkezpena 1

Ikasgela irekia

María Jesús López

Euskara ikasten Madrilen 4

Alaitz Etxebarria

Hizkuntza, kultura transmisioa eta alderdi soziolinguistikoa-
ren aplikazioa euskaltegiko taldeetan 17

Ikerketak

Josu Perales

C-testei gertuagotik begiratuz 32

Bestelako iturrietatik

Kepa Larrea

Euskalduntzearen umoreak 67

Artikulugileentzako irizpideak 93

Aurkibideak: egileak eta izenburuak 97

HIZPIDE

EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA



HARPIDETZA-ORRIA

Izen-deiturak:

Kalea: Zenbakia:

Herria eta Pk: Probintzia:

Hizpide aldizkaria jaso nahi dut etxean. 2007an hiru ale: 13 €. Honela ordainduko dut: N.A.N.:

Kontu korrante bidez

Bankua edo Aurrezki-Kutxa:

Sukurtsala:

Zenbakia:

Transferentziaz (Kutxa 2101.0381.01.0003069002)

HABEren izenean luzaturiko txkekez



**Helbide honetara bidali behar da:
hizpide aldizkaria
Vitoria-Gasteiz, 3
20018 Donostia**

Formulario honetako datuak fitxategi automatizatu batean bilduko dira, HABEk aldizkaria jasotzeko eskabideak kudeatu ahal izateko. Fitxategi datuetara sartzeko, datuak aldatu edo deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, HABEra jo dezakezue. Vitoria-Gasteiz kalea, 3-6. 20018 Donostia.



Aurkezpena

Hauxe dugu, irakurle, Hizpideren 66. alearen mamia.

Ikasgela irekia.— Gauza jakina da euskara ez dela bakarrik ez ikasten ez irakasten Euskal Herrian. Argitara emanak dira, esaterako, aldizkari honetan bertan ere Argentinan, Polonian, Estatu Batuetan eskainitako euskara-eskolen berri jakinerazten duten artikulua. “Euskara munduan” programa ere hortxe dago. Eta Madrilen ere bada euskara ikasi nahi duena eta irakasten duena ere bai.

Artikuluaren izena da “Euskara ikasten Madrilen” hain zuzen ere. Eta María Jesús López irakaslearen eskutik datorkigu. María Jesús Madrilen jaioa dugu eta Madrilen bizi da. Bertan ikasi zuen euskara. Baina, gaur egun, jatorrizko euskaldunetatik ezin bereiz daitezkeen hiztun horietako bat dugu. Madrilgo Jesús Maestro hizkuntza eskola ofizialeko euskara departamentuko burua da eta berak irekiko dizkigu hango euskara-ikasgeletako ateak. Horrela, bada, xehe-xehe azalduko digu zenbat ikasle ari diren hizkuntza eskolan euskara ikasten, horien profilak (jatorria, adina, sexua, jarrerak, ikasteko motibazioa...), darabiltzen metodologia, ikasteko materialak, ebaluazioa... María Jesúsek baieztatuko digu, berriro ere, “ezina ekinez egina” esaldia egia osoa izan daitekeela.

Hurrengo artikulua Alaitz Etxebarria AEK-ko irakasleak idatzi du. Izenburua da “Hizkuntza, kultura transmisioa eta alderdi soziolinguistikoaren aplikazioa euskaltegiko taldeetan”. Hizkuntza irakastea ez da ikasleei ezagutza linguistiko soil batzuk dauden-daudenean eskaintzea. Alderdi soziolinguistikoak berebiziko pisua du egiteko horretan guztian. Makina bat aldiz ekarri da mahai gainera ezagutzaren eta erabileraren arteko desoreka. Alaitz Etxebarria kezkatuta ageri da lorpen-emaitzak direla-eta baina, aldi berean, baikor ere bai hobera egin daitekeelakoan.

Hizkuntza, bestalde, gizartearen kulturaren parte garrantziko bat da. Funtszkoena askoren ustez, zeren eta hizkuntza, besteak beste, bera osagai deneko kulturaren garraio-tresnarik behinena ere baita.

Euskara irakastea euskal kulturaz janztea ere bada. Artikugileak, lehen esan bezala, euskara-irakasle dihardu helduen euskalduntze-alfabetatzean, eta, aipatutako alderdi horiek aintzat harturik, euskaltegietan duten isla aztertzen du. Motibazioa, ezagutza eta erabileraren hirukotea ere aztergai du eta horien guztien gaineko gogoeta eskaintzera datorkigu. Horretarako, José María Sánchez Carrión Txepetxen “Un futuro para nuestro pasado” liburua baliatu du nagusiki. Artikulu interesgarria da ez bairik gabe zeren eta egunero euskara-ikasle helduen aurrean jartzen

den baten eskutik baitator, “lehenenengo lubakitik” alegia. Eta testigantza eta gogoeta horiek biziki dira denok estimatzeakoak.

Ikerketak.– Artikuluaren izena da “C-testei gertuagotik begiratu” eta egilea Josu Perales dugu. Gero eta gehiago erabiltzen ari dira hizkuntzen ebaluazioaren alorrean C-test izeneko probak. C-testa Cloze-testaren aldaera bat da. Izan ere, proba-mota horri emandako izena bera Cloze-testaren zordun da.

Cloze-testean ez bezala, C-testean aukeratutako hitzak –biz bat– testutik kendu beharrean, bertan uzten dira, baina, eskuin aldeko erdia ezabatuta. Proba-mota horren inguruan egindako azterlanetan bistarutzen denez, baditu hainbat abantaila usadiozko Cloze-testekin alderatuta.

Cloze-testei batzuek egindako maiseoen artean baliotasun eskasa da aipatuena. Cloze-testek testu bakarra dute oinarri. Eta desabantaila izaten da hori ikasle batzuek asko jakin dezaketelako gaiaz eta beste batzuek, berriz, ez hainbeste. C-testaren bidez, irakurmenetik harago, hizkuntza trebetasun orokorra neurtzen da. Bat datoz horretan gaia jorratu duten aditu gehienak. Eta azterlanen emaitzen arabera, Cloze-testa baino baliotasun handiagokoa da. Fidagarritasunari dagokionez ere oso koefiziente altuak eskaintzen dira.

Artikuluaren esaten da Euskararen irakaskuntzan ere mereziko lukeela erabiltzea C-testak baldin-eta, sakonetik aztertutakoan, ikusiko balitz egokia dela. Erabilera-eremu bat aipatzen dugu bereziki: ikasleak sailkatzea duten mailaren arabera. Horrek ez du bazter uzten, noski, probak beste era batzuetara erabil daitezkeela. Baina, dituen ezaugarriengatik (aplikazio eta zuzenketa erraza, besteak beste) mailaketa da, ez bairik gabe, adituek aitortzen dioten erabilera-modu egokienetako bat.

Artikuluaren zehar behin baino gehiagotan aldarrikatzen da, era zuzenean nahiz zeharbidez, arriskutsua izan daitekeela beste inguruneetan egiaztatua dutena hartu eta dagoen-dagoenean gurera, euskararen egoerara, ekartzea.

Euskara ez da hizkuntza indoeroparra. Baditu ezaugarri bere-bereak bai arlo linguistikoan bai soziolinguistikoan. Horrenbestez bada, artikuluaren azken aldarria da gaiaren inguruko azterlanak egin behar direla ezer ibilian jarri baino lehen, zeren eta beste inguruneetarako balio duenak ez baitu, bere horretan, guretzat ere zertan balio izanik.

Bestelako lankidetzak.– “Euskalduntzearen umoreak” horra hor Kepa Larrea irakasleak idatzi duen artikuluaren izenburua. Begien bistakoa da zerbaiti aldarte onean umoretsu ekitea, gustagarriagoa izan daitekeela. Gogo onez jardungo dugu seguru asko eta, azkenean, emaitzak ere galga berean lortuko ditugu jarduteko adorea eta kemena izan baitugu aurrenik.

Umorea, agerikoa denez, oso osagai lagungarria izan daiteke bizitzaren alor guztietan. Ezinbestekoa esango genuke guk. Umorearen rol soziala nabarmen gelditu da hizkuntzen irakaskuntzaren alorrean burututako hainbat azterlanetan. Talde-kohesioa indartzen du besteak beste.

Ba al dago helduen euskalduntze-alfabetatzean, euskara-eskoletan, umorerik? Ba al dago euskara irakasteko materialetan umorea pizteko bitartekorik? Kepa Larreak galdetu egiten du, eta, erantzuten ere ahaleginu da bere artikuluan. Izan ere, berak dioskunez, irakaskuntza, oro har, gai serioegia da eta umoreak ez omen dauka hor toki handirik. Errealitatea bestelakoa da, ordea. Umorea bizitzaren aro eta arlo guztietan agertzen da eta irakaskuntzan ere bere tokia bete beharko luke.

Helduen euskalduntze-alfabetatzean erabilitako hiztegi eta gramatiketan eta gomendatuko liburu eta irakurgaietan umorea bera lantzeko edota umorearen bidez euskara lantzeko hainbat proposamen aurki daitezke, sarri askotan, liburu horien egileen asmoa besterik izan bada ere. Beraz, umorea irakaskuntzaren beste euskarri eta baliabidetzat har daiteke, baldin eta neurritz eta egoki erabiltzen bada. Artikulu mamitsua dugu, beraz, baita –ezin bestela izan– umoretsua ere.

Azkenik, “Aurkibideak: egileak eta izenburuak” ohiko atala duzu kontsultagai, irakurle, Hizpidek probexuzkoa izan dakizula opa dizu.